



GREENGROUP

FUNTSEZKO SOZIETATEAK:

Kaleen garbiketarekin eta ekologiarekin zerikusia duten enpresekin egin beharko dugu lan, gure proiektua haien onurarako izan daitezkeelako. Gasteizko kale-garbitzaileak aukera ona izango zirela pentsatu dugu. Lehen, FCC enpresa arduratzen zen horretaz, baina 2021eko azaroaren 1ean Cespa-Onaindiak ordezkatu zuen. Alintzak sortuko ditugu enpresa horrekin elkarlanean aritzeko.



Betetik Probintzietako Ur Partzuegoek, El Correo zein Rural Kutxak, Hau da green bezalako proiektu jasagarrien babesleak izan direla jakin izan dugu. El Correo eta Rural Kutxara joko dugu gure proiektua aurkeztu eta beraien babesak eskatzera..

Babesle horiek haien publizitatea gure aplikazioan eta webgunean ipini ahal izango dute, eta haien proiektuak kontuan hartuko ditugu, elkarrekin lan egiteko.

Donostiako Ekomodo enpresarekin ere elkarlanean jardungo dugu. Enpresak birziklatutako plastikoa erabiltzen du, produktuak egiteko. Naturaren babesaren aldeko kontzientzia handia erakusten duen enpresa da. Guk zakarraren erabilera egokia bultzatzen dugu; beraz, hitzaldiak elkarrekin emango ditugu, edukiak aberatsagoak izan daitezzen. Bide batez, hitzaldietako entzuleek, Ekomodo enpresa ezagutzeko aukera izango dute.



Horretaz gain, Arabako Foru Aldundiari diru-laguntzak eskatuko dizkiogu, gure enpresak herritarrentzako zerbitzu bat eskaintzen duelako, eta nola ez, Gasteizko Udaletxeari, beti ekintza ekologiko hauen alde aurkeztu bait du bere burua.

Kaleetan jartzeko pegatinak Alunarte enpresaren laguntzarekin egingo dugu Gasteizko marketing enpresa bat baita eta bertako negozioak eta "zero-kilometrokoak" bultzatzen bait ditugu.



Salgai izango ditugun produktuak Zazzle-ren bitartez lortuko ditugu(haiek gure proposamena onartu dute produktuak material birziklatuekin egiteko), gero posta bitartez etxeetara bidaltzeko.